

9. SAIOA

1 – Peiok 9 € zeuzkan eta aitak 7 € eman zizkion. 8 euroko liburua erosi zuen.

Zenbat geratzen zaizkio?

- a) 6 €
- b) 8 €
- c) 24 €

2 – Abioian 11 pertsona zeuden. Aireportuan 10 igo ziren eta 11 jaitsi ziren.

Zenbat pertsona daude abioian?

- a) 32 pertsona
- b) 10 pertsona
- c) 11 pertsona

3 – Saioak 11 € dauzka. Amak 6 € ematen dizkio eta 7 € gastatzen ditu. Zenbat geratzen zaizkio?

- a) 10 €
- b) 24 €
- c) 9 €

4 – Itxasok, apalean, 6 liburu zeuzkan. Urtebetetzerako, 2 oparitu zizkieten eta lagunei 2 utzi zizkien. Zenbat liburu dauzka orain?

- a) 13 liburu
- b) 4 liburu
- c) 3 liburu

11. SAIOA

1 – Kepak 13 € dauzka. 4 € gastatzen ditu goxokitan eta 3 pipatan. Zenbat diru dauzka soberan?

- a) 20 €
- b) 6 €
- c) 5 €

2 – Jonek 5 disko dauzka, Amaiak 2 eta Nekanek 3. Zenbat disko dauzkate hiruren artean?

- a) 10 disko
- b) 8 disko
- c) 7 disko

3 – Lorazainak 5 zuhaitz landatu zituen eta, geroago, 5 gehiago. 2 zuhaitz hil ziren. Zenbat zuhaitz daude lorategian?

- a) 12 zuhaitz
- b) 10 zuhaitz
- c) 8 zuhaitz

4 – Patiora irtetean 9 bola neuzkan. 4 irabazi nituen baina gero 5 galdu nituen. Zenbat dauzka orain?

- a) 18 bola
- b) 6 bola
- c) 8 bola